

BARNEKO ERREGIMENAKO ARAUDIA (BEA) 2016-2017 IKASTURTEA

DERIO NEKAZARITZA ESKOLA BHI Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko ikastetxe publikoa da, eta honako printzipio hauek ditu:

- Ikaslearen garapen pertsonalari lagundu komunitate solidario batean.
- Ikaslearen giza heziketari lagundu, gure gizartean kritikoak eta sortzaileak izan daitezen.
- Ikasleari beharrezko ezagupenak eta teknikak irakatsi, etorkizunean beste ikasketa batzuk egitea edo lan munduan sartzea ahalbidetuko dietenak.
- Ezagupenak, eta ikasteko nahiz lanerako ohiturak hartu.
- Askatasun pertsonala, eta oinarrizko eskubide, betebeharrak eta askatasuna sustatu.

Horregatik ezartzen dira elkarbizitzarako arau hauek, “Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez Kanpoko Ikastetxeetan ikasleen eskubide eta betebeharrak” arautzen dituen dekretuaren esparruan. Nekazaritza Eskolako zentroetan matrikulatzen den ikasleak, dokumentu honetako arau guztiak bete beharko ditu.

BARNE ARAUDIA

1. Ikastetxearen antolamendu orokorra

- 1.1. Klaseen ordutegia honakoa izango da: 8.15-14.45
- 1.2. Heziketa Zikloko ikasketek (Erdi Mailakoek nahiz Goi Mailakoek) 2000 orduko iraupena dute, eta bi urtetan egingo dira.
- 1.3. Ikasturte hasieran honako dokumentazioa emango zaio ikasle bakoitzari:
Irakaskuntza-gida: Barneko Erregimenako Araudia, eskola egutegia, klase ordutegiak..., eta praktika eta teoriarako beharrezkoa den materiala

2. Aseguru Poliza


Matrikula egin ondoren 28 urte baino gutxiago duten ikasleek eskola aseguru tasak ordaindu beharko dituzte. 28 urte baino gehiagokoek, eskolan gerta daitezkeen istripuak estaliko dituen asegururik ez dutenez, seguru pribatu edo publiko bat egitea gomendatzen zaie.

3. Ikasturte promozioa

ikasturteko promozioa hurrengo Kronograman adierazten da:



LOE Zikloak



4. Ebaluazioak

- 4.1. Ebaluazio irizpideak: moduluak kalifikatzeko garaian, zati teorikoa, praktikoa eta jarrera kalifikatuko dira. Ikasturte hasieran, irakasle bakoitzak idatziz emango dizkie ikasleei berak ematen dituen moduluen ebaluazio irizpideak, programazioarekin batera (Helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, ebaluazio sistema).
- 4.2. Erdi edo Goi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo maila egiten duten ikasleek bi ebaluazio izango dituzte ikasturtean, eta horrez gain, bi deialdi ofizial: 1. ikasturteko 1. azken ebaluazioa eta 1. ikasturteko 2. azken ebaluazioa (LOE).
- 4.3. Heziketa Zikloetako bigarren maila egiten dutenek (Erdi eta Goi Mailakoa), ebaluazio bat izango dute ikasturtean.

-LOE zikloak bi deialdi ofizial: 2. ikasturteko 1.azken ebaluazioa eta 2.ikasturteko 2. azken ebaluazioa(LOE).

- Ikasle batek modulu bat errepikatzerakoan ikasgai-zerrenda aldatu bada, ikasgai-zerrenda berrira moldatu behar izango da.
- 4.4. Ebaluazioei dagokienean, honako hau ezartzen da
 - 1. ikasturteko 1. azken ebaluazioan, ikaslea gainditu gabeko edukietara aurkeztu beharko da. (aurreko orrialdeko eskeman begiratu)
 - 2. Ikasturteko 1. azken ebaluazioan, ikaslea 2. mailako gainditu gabeko edukietara eta 1. mailan gainditu gabe dituen moduluetaura aurkeztu beharko da.
 - 2. Azken ebaluazioko, ikaslea gainditu gabeko edukietara edo modulu osora aurkeztu beharko da irakaslearen irizpidearen arabera.
- 4.5. Ikasle guztiek ebaluazio jarraia egiteko eskubidea dute. Modulu bakoitzeko%20ko asistentzi faltak gainditzeko dituen ebaluazio jarraia egiteko eskubidea galduko du modulu horretan . Kasu horretan, 1. eta 2. azken ebaluazioetara aurkezteko eskubidea izango du, modulu osora aurkeztu behar izanik (aurretik gainditutako edukiak ez dira gordeko).
- 4.6. Goi Mailako nahiz Erdi Mailako Heziketa Zikloak egiten ari diren ikasleek lau deialdi izango dituzte modulu bakoitza gainditzeko, LP (Lantokiko Prestakuntza) kenduta, izan ere azken honek bi deialdi izango ditu.
- 4.7. Ikasle guztiek dute eskubidea beren kalifikazioetan eragina izan dezaketen azterketa edo idatzizko proba oro zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko.
- 4.8. Kalifikazioak argitaratu eta ikasleei jakinarazten zaizkientetik, aste bateko epea izango dute hauek azterketak ikusi eta kalifikazio horri buruzko erreklamazioak aurkezteko.
- 4.9. Ebaluazio buletinak, gertakizun, asistentzia, jarrera etab. gurasoei, tutoreei edo ordezkari legalei bidaliko zaie adin txikiko ikasleen kasuan.



- 4.10. LP (Lantokiko Prestakuntza) modulua ebaluatzeko irizpideak: enpresako tutorearen balorazioa, ikastetxeko tutorearen balorazioa, lantokiko egonaldiari buruz ikasleak bete beharreko praktika liburuxka, eta modulu honi dagozkion ordu guztiak betetzea. LP modulua Gaingaitua edo Ez Gaingaitua bezala kalifikatuko da.
- 4.11. Heziketa Ziklo baten (dela Erdi Mailakoa, dela Goi Mailakoa) titulua eskuratu ahal izateko, ikasleak modulu guztiak gaingaitu beharko ditu.

5. Klaseetara agertzea

- 5.1. Klaseetara agertzea eskola honetako ikasle guztien eskubidea eta betebeharra da.
- 5.2. Modulu bakoitzean ebaluazio jarraituaren eskubidea mantentzeko, ikaslearen asistentzia %80 baino txikiagoa ezingo da izan.
- 5.3. Ebaluazio garaian modulu berean klasetik hiru aldiz kaleratzeak ebaluazio eta errehabilitaziorako eskubidea galtzea dakar; era berean, kaleratzeko arrazoia eman duen portaera zigortu egingo da, hutsegite bezala hartuz (hutsegite arina, larria edo oso larria).
- 5.8. Klase teoriko eta praktikotik, ikasleek beharrezko segurtasuneko ekipamendua, tresnak edo/eta eskolako materiala eramango dute, eta bestela, ezingo dute klaseetara agertu. Klaseetara ez agertze hori hutsegite bezala hartuko da.

6. Ikasleen parte hartzea

- 6.1. Ikasle guztiek dute eskubidea hezkuntza egokia jasotzeko ikastetxeko programazioaren barruan, eta lortu nahi diren helburuetarako baldintza material egokiak izateko.
- 6.2. Ikasle guztiek dute eskubidea eskolako bizitzan eta kulturaren parte hartzeko:
 - Ikasgela bakoitzak ordezkari eta ordezkariorde bat aukeratu behar du ikasturte hasieran.
 - OOG-n parte hartzeko eskubidea dute.
- 6.3. Ikasleek eskolako langile eta ondasun guztiak errespetatu behar dituzte.
- 6.4. Ikasleek lagundu egin beharko dute irakaskuntzaren kalitatea hobetzen.



7. Batzarrak

- 7.1. Ikastetxean matrikulatutako ikasleen bilera da batzarra. Aurrez deitua izan behar du, eta ikastetxeko jarduerekin lotutako gaiari buruz edo gizarteko gertaera oso garrantzitsuei buruz hitz egiteko helburua du.
- 7.2. Batzarra eskola orduetatik kanpo egingo da, zuzendaritzaren iritziz egoera oso bereziak diren kasuetan ezik. 24 ordu aurretik, deialdiaren arrazoia jakinaraziko zaio zuzendaritzari.
- 7.3. Gai zerrenda bat izango da, eta dagozkien lekuetan eta ikastetxeko zuzendaritzan jarriko da. Adierazi beharrekoak dira:
 - Batzarraren eguna, lekua eta ordua.
 - Aztertuko diren gaiak.
 - Deialdia egiten duten pertsonak edo/eta erakundeak.

8. Greba, geldialdiak eta bozketak

- 8.1. Edozein kolektibok duen eskubidea eta azken baliabidea da greba, batzarrak adostutako errebindikazio bat lortzeko.
- 8.2. Deialdian ateratako emaitza grebaren aldekoa izan denean, klaseetara ez agertzea ez da diziplinako hutsegite moduan zenbatuko. Greba egiteak ikastetxea uztea esan nahi du grebak dirauen bitartean.
- 8.3. Bozketak klase orduetatik kanpo egingo dira, horretarako zuzendaritzari baimena eskatuko zaio 24 ordu aurretik eta berauei deialdia helarazi.
- 8.4. Botoa ezkutuan emango da, eta dagokion tutorea bertan dela.
- 8.5. Batzarretan parte hartzea eta botoa ematea librea eta borondatezkoa izango da, eta ikastetxean matrikulatutako ikasketetara agertzen den orok izango du eskubidea horretarako.
- 8.6. Botoa ematea gela bakoitzean egingo da. Botoa eman ahal izateko, boto eskubidea duten ikasleen erdia eta bat gehiago bertaratu behar da.
- 8.7. Bozketen akta jasoko da. Akta horiek tutoreak edo irakasleak eta ikasleen ordezkariak sinatuko dituzte, eta honakoa jasoko dute:
 - Eguna, lekua eta ordua.
 - Bertaratu den ikasle kopurua, desbinkulatu diren ikasleak, baiezko botoak, ezezko botoak, zuriak, baliogabeak eta abstentzioak (hauek ez dira kontuan izango botoen %a zenbatzean).
 - Bozketaren emaitza, proposamenari baiezkoa edo ezezkoa eman zaion adieraziz. Emaitza gela bakoitzeko izango da.
- 8.8. Tutoreak berehala ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dio akta.



- 8.9. Batzarrean jorratu den proposamena onartu egingo da gelan emandako botoen erdia eta bat gehiagok proposamen horren aldeko botoa eman dutenean.
- 8.10. Grebako deialdia eta ikasgelako emaitza ez dira lotesleak
- 8.11. Ikastetxeak zerbitzu guztiak emango dizkie grebarako deialditik desbinkulatu diren ikasleei edota greba egiten ez dutenei, eta ikasturteko jarduerak egingo dira.
- 8.12. Ikasleek grebarako eskubidea erabiltzeak ez du esan nahi irakasleak betebeharra duenik klasera ez etortzeagatik eman ez den eskolako programaren zatia errepikatzeko.
- 8.13. Greba egindako orduak ikasturtearen %3 baino gehiago direnean, %3 hori gainditzen duen ordu kopurua errekuperatu egin behar da.

9. Norberaren gauzak

- 10.1. Norberaren gauzei dagokienez, lapurreta, galtzea edo bestelako gertakaririk izanez gero ikastetxeak ez du ardurarik izango.

JANTOKIKO BARNEKO ERREGIMENAKO ARAUDIA (BEA) (2015-2016)

DERIOKO NEKAZARITZA ESKOLAK, egitura akademikoaz gain, JANTOKIA ere dauka

Kolektibo bat elkarrekin egon eta bizitzeak antolamendua eskatzen du, eta arau batzuk bete eta errespetatzea. Horretarako dago B.E.A hau. Honako hauek arautuko ditu: hutsegiteak, zigorrak eta kanporatzeak. Edonola ere, norbaitek jangela zerbitzua erabiltzen duenean antolamendu eta arau hauek askatasunez onartzen dituela ulertzen da, eta gainera errespetatzeko konpromisoa hartzen duela.

Jantokiaren **HELBURUA** ikasleek eskola honetan ikasteko beharrezko bitartekoak eskaintzea da, baina, horren ordainetan, ikasketetan aprobetxamenduari eta interesari dagokienean gutxiengo batzuk bete behar dituzte eta jokabide egokia izan behar dute jangelarako eskubidea izateko. Gutxiengo hauetakoren bat ez betetzea nahikoa izango da ikasleei jantokirako eskubidea kentzeko edo zerbitzu honen kostu errealaeren tarifa ezartzeko.

Jantoki zerbitzuak bazkaria eskainiko du astelehenetik ostiralera.

Jantokiko ORDUTEGIA 14.45etatik – 15.30etara da.

JANTOKIAN autozerbitzu sistema erabiliko da.

Osasun araudia betetzeko, ikasleek ezingo dute sukaldean eta alboko geletan sartu eta egon. Horrez gain, jangela garbi edukitzeko, ezingo da praktiketako jantzi zikinekin sartu.

Bestalde, ikasleek jarrera, ordena eta heziera egokia izan behar dute jangelan.

Sukaldea antolatzeko, bazkarira ez datorrenak aurrez jakinarazi beharko du.

Jangelako altak, bajak eta aldaketak idazkaritzan jakinarazi beharko dira hiruhileko berria hasi aurreko hamabost egunetan, eta beti ere idatziz.



DIZIPLINAZKO ERREGIMENA

Hutsegitea zer den: Araudi honetan hutsegitetzat joko da honako jokabide anormal oro:

- Eskolako pertsona, ikaskide, bisitari eta abarrenanako errespetu falta.
- Eskolako ondasunak (ondasun higigarriak nahiz higiezinak) gaizki erabiltzea eta hondatzea, mesprezuz, zabarkeriaz edo nahita.
- Erakundeko arauak ez betetzea, ikasketekiko interes falta edo/eta jarrera desegokia.

Hutsegite motak: Diziplinari dagokionez, Klasera ez etortzea eta hutsegite arinak, larriak eta oso larriak daude..

1. **Klasera ez etortzea:** adibidez, justifikatu gabeko hutsegiteak, segurtasuneko ekipamendua, tresnak edo/eta materiala ez eramatea klase teoriko eta praktikoetara.
2. **Hutsegite arinak:**
 - Zabarkeria, utzikeria, eta eskolarekiko edo eta ikasleari eskainiriko bitartekoekiko mesprezua.
 - Portaera hutsegite arinak.
 - Klasean telefono mugikorra erabiltzea.
 - Ikastetxeko edozein lekutan desordena edo/eta zikinkeria, gela, pasabide eta eskola barruti osoan erretzea, klase orduetan jatea, etab.
3. **Hutsegite larriak:**
 - Hiru hutsegite arin izatea.
 - Ikastetxeko pertsona edo ikastetxeak ikasleei eskainiriko bitartekoekiko intenzionalitatea, utzikeria eta mesprezua.
 - Portaera hutsegite larriak.
 - Justifikaziorik gabe, idazkaritzan, irakasle gelan edo ikasleek sartzeko baimenik ez duten geletan sartzea.
 - Interesik ezak eta ebaluazioetara ez agertzeak ikaslearen betebeharretakoko bat uztea adierazten du, eta hutsegite larri moduan zigortu daiteke.
 - Hezkuntza komunitatearen ohore, intimitate eta norberaren irudirako eskubidea ez errespetatzea.
 - Suteen alarma manipulatzeko edo martxan jartzea.
4. **Hutsegite oso larriak:**
 - Besteren ondareko bidegabeko jabetzea
 - Bere izaera antisozialagatik lehen aipatutakoak gaintitzen dituzten guztiak
 - Lau akats larri izatea.
 - Eskola barrutian drogak eta alkohola edukitzea eta sartzea.
 - Elkarbizitzari larriki eragiten dioten jarrerak



Zigorrak:

1. Hutsegite arinak honela zigortuko dira:
 - Egindako hutsegitea jakinaraziko zaio ikasleari
 - Hondatutako materiala konpondu edo ordaintzea.
 - Hutsegiteari dagozkion lanak egitea.
 - Hutsegitearekin lotutako beste edozein zigor betetzea.
 - Telefono mugikorra erabiltzeagatik ikasgelatik kanporatzea.

 2. Hutsegite larriak honela zigortuko dira:
 - Klasera joateko eskubidea etetea 3 egunez
 - Jantokitik kaleratzea betiko edo denboraldi baterako.
 - Hutsegiteari dagozkion lanak egitea.
 - Hutsegite hauen edo antzekoen ondorioz kalterik sortuz gero, egin duenaren kontura izango da ordainketa edo ordezko materiala ekartzea. Kaltearen ardura bere gain inork hartzen ez badu, une horretan ikastetxean edo gelan zeudenen artean banatuko da ordainketa.
 - Era berean, justifikaziorik ez duten edo proportzionatuak ez diren kalteen faktura pasatu ahal izango zaie ikasleei. klasean daudenen artean banatuko da zenbatekoa proportzionalki.

 3. Hutsegite oso larriak honela zigortuko dira:
 - Jantokirako eskubide osoa kentzea.
 - Klasera joateko eskubidea etetea 3 eta 20 egun artean.
 - Hutsegite hauen ondorioz kalterik sortuz gero, egin duenaren kontura egingo da ordainketa eta ordezko materiala ekartzea.
- **Zehapen-prozedura:** Zigorrak ezartzeko ardura Ordezkaritza Organo Gorena-rena (OOG) izango da. Horretarako, txostena OOG-ra bidali beharko da.
 - Edozein kasutan, bai ikasleek edo gurasoek eskubidea dute OOG-ak entzun ditzan.